



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiaiko mendietan ibilia da.

Aitzuloko Begia

MENDITXIKI – GIPUZKOA AITZULO ETA ORKATZATEGI

Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren bihotzean, mirari geologiko ikusgarrienetakoa den Aitzuloko Begia irekitzen da. Formazio natural hau, harkaitzean zizelkatutako katedral baten antzekoa da, Orkatzategiko mendia zeharkatzen duen tunela, begi-niniaren itxuraz zabaltzen den irekidura erraldoia. Leiho natural, ikaragarri eta misteriotso honek, Oñatiko haranaren panoramika ikusgarria eskaintzen du.

Araotzetik abiatu, Aitzuloko Begitik pasa eta Orkatzategiko tontorrera igoko gara. Ibilbidea zirkularra da eta bi noranzkotan egin daiteke; hala ere, lehendabizi Aitzuloko Begira eta gero Orkatzategiko tontorrera joanez gero, hasierako aldapa luze

eta aspergarria saihestuko dugu. Ibilbidea Araotzeko Elizondo auzoan hasten da, Oñatin. Hau erdigunea da eta bertan eliza, pilotalekua, bolalekua, eskola zaharra eta elkarte daude. Arabarekin muga egiten duen herri txiki bat da, eta bertan,

sarbideko errepidearen ondoan, aparkaleku txiki bat aurkituko dugu.

Aparkalekuaren atzeko aldatatik Ugaran auzora jaisten hasiko gara. Hara iristean, errepidetik jarraituko dugu, kilometro erdi baino gutxiago, Errotabarriraino. Auzo

honek, ferratokia, errota eta zubi interesgarriarekin batera, garbitoki hondatua dauka errekan. Saratxo erreka zeharkatu ondoren, Zubia auzora doan bide zaharra hartuko dugu. Laster auzo-errepidera irtengo gara, eta handik auzoko etxeen artean ibiliko gara.

Kareharrian naturak zizelkatutako mirari geologiko ikusgarria

Bideak etxe ezberdinen artetik jarraitzen du. Ibilbidea marra hori eta zuriz seinalez-tatuta dago (PR-Gi 3003, Uraren bidea). Jarraitu beharreko bideak Aitzuloko Begiraino eramango gaitu. Otalora baserrian, asfaltozko bidea utzi eta lurrezko bidetik gorantz joko dugu.

Eugenio de Otalora Handiren harrizko lorategiaren (Lurgorri Atxarraga) ondotik igaro ostean, pinudi bat zeharkatu eta berehala helduko gara borda baten ondora. Bide eroso eta nabarmenak haitzuloaren sarrerara eramango gaitu.

Aitzuloko Begia naturak zizelkatutako mirari geologikoa da. Kareharrian irekitako arku-leiho erraldoitik Oñatiko bailara ikus daiteke. Ikaragarria bezain misterio-tsua den leiho natural honek forma apeta-tsua ditu, eta natura zein argazkigintza maite dutenentzat helmuga kuttun bihurtu da. Orkatzategiko mendia zeharkatzen duen kobazuloak sabaian zulo bat du: munduari begira dagoen leiho handi baten antzekoa.

Orkatzategitik Urkuluko urtegiaren, Anboto eta Udalatx gailurren ikuspegi ederrak daude

Orkatzategirantz jarraitzerakoan, haitzuloaren eskuinaldean dagoen arrasto hori eta zuriekin markatutako bidetik jarraitu behar dugu. Zuhaixa batzuen artean pasa eta zabalgunek batera iritsiko gara. Ibilbidea jendearen joan-etorriak markatzen du, eta arrasto horiak eta zuriak agertzen dira lurrean. Aitzgaineke presa txikiaren ingurura heltzean, bide balizatu



Aitzuloko Begia

utzi eta ondo markatutako xendak barrena igotzen jarraituko dugu.

Ondo zapalduetako bidetik jarraituz, Orkatzategira igotzeko lur harritsuzko azken tarteari ekingo diogu. Lehenengo, lepo txiki batera eramango gaitu, eta, gero, haitz harritsu, haizetsu eta bista bikainak dituen tontorrera. Urkuluko urtegiaren eta Anboto eta Udalatx gailurren ikuspegi ederrez gozatu ahal izango dugu.

Ibilaldiaren zatirik handiena Uraren Bidetik beteko dugu

Abiapuntura itzultzeko, kontrako isurialdetik (HM) jaitsiko gara bidezidor lau-so batetik. Aldapa biziak Urtapotolueta I trikuharriaren ondora eramango gaitu, eta aurrerago Linatzako tumulua ikusiko dugu. Uraren Bidea bide balizatuarekin berriro bat egingo dugu, eta handik Santa Krutzeko lepora iritsiko gara, izen bereko ermitatik gertu.

Pista zabaletik behera jaisten hasiko gara, eta bertan kilometro bat pasatxo bili ondoren, Agerre baserrien ondora iritsiko gara. Han, eskuinetik ateratzen den lurrezko pista hartuko dugu. Bide erosoak Aiz-

korbe auzoko baserri ederretatik eramango gaitu bertan pare bat garbitoki ikusiz. Errepidera atera eta berehala iritsiko gara abiapuntura.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Zailtasuna:	erraza
Luzera:	9,6 km
Desnibela:	483 m
Iraupena:	3 ordu 15'

